

LEIOAKO AGATE DEUNA EGUNEKO XXVIII. KANTA LEHIAKETA

Agate Deuneko lehiaketa udalerriko auzo desberdinetan zehar egingo da, 2017ko otsailaren 4an, larunbata.

Bi kategoria dago:

- A. 16 urte arte.
- B. 16 urtetik aurrera.

Kantatzekobost gunetan banatu da udalerria:

*** A Gunea: Lamiako**

(Nagusien Etxea, Txopoeta, Txorierrri, Langileria).

*** B Gunea: Pinueta-Ibaiondo**

(PinuetaKulturgunea, Cervantes Plaza, Beira putzegilearen estatuaren ingurua, Ibaiondo).

*** C Gunea: Erdigunea**

(Ikea plaza, Euskal Etxeen plaza, San Juan auzoa, Jose Ramon Aketxe eta Errekalde plazak).

*** D Gunea: San Bartolome/Basaez, Artatza, Artatzagana**

(Artatzak kalea, Negurigana, Ermita, Artatzagana plaza).

*** E Gunea: Kandelazubieta- Udondo**

(Kandelazubieta, Udondoko Bulebarra).

Talde bakoitzak ondoen datorkion gunea aukeratu ahal izango du, eta aurretik hautatu eta antolakuntzari inskripzio orrian jakinarazitako gune horretan abestu beharko du.

Antolakuntzak leku zehatz bat esleituko dio inskribatutako talde bakoitzari, hautatutako gunearen barruan, baita ordun jakin bat ere:

- A kategorian: adierazitakoen arteko leku bat.
- B kategorian: Euskal Etxeen Plaza.

Esleitutako lekuaz gain, abesbatza bakoitzak beste leku batzuetan ere abes dezake, gunearen barruan edo gunetik kanpo.

Dirua eskatzea talde bakoitzaren ardurapean eta askatasunpean geratuko da.

Hauek izango dira sariak kategoria bakoitzean:

- 1 - 350 euro, garaikurra eta diploma.
- 2 - 250 euro, garaikurra eta diploma.
- 3 - 175 euro, garaikurra eta diploma.

SARI BANAKETA: otsailaren 11, larunbata, 12:00etan. Kultur Leioako Erakusketa Aretoan.

Epaimahaia musika arloko profesionalak eta abesbatza eta musika tradizionalari lotutako pertsonak osatuko dute.

Epailleek interpretazioa ikusi eta puntuatu egingo dute ezarritako lekuetan. Epailleek hauek bezalako aspektuak hartuko dituzte kontuan: ahotsak ondo enpastatuta egotea, perkusioaren erritmoa, ahoskatzea, bakarlariak egotea, ahotsen ñabardurak, taldeak ematen duen azken itxura, jantziak, partaidetza eta berdintasuna (taldekide kopurua, eta adin eta sexu desberdinetako kideak egotea), apaingarriak eta giroa.

Erabakia apelaezina izango da.

Sariak hutsik gera daitezke.

Halaber, epailleek egoki iritziz gero, aipamen bereziak eman litezke.

Izena emateko epea 2017ko urtarrilaren 30ean bukatuko da, eta hemen egin beharko da:

- Aurrez aurre, KULTUR LEIOAko harreran. Jose Ramon Aketxe plaza 11.

Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 21:00etara.

- Posta elektronikoz: infokultur@leioa.net

- Telefonoz: 94 607 25 78

Inskripzioa egiten den unean datu hauek eman beharko dira:

- Taldearen izena
- Taldeko arduradunaren izen-abizenak, NAN, telefonoa eta emaila.

